

# EPE 2018

## Nafarroa



**Adi!**

Deialdi hau NAOn argitaratua izan den arren, bertan hainbat akats hauteman ditugu; honenbestez aldaketak egon daitezke.



[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

# Martxoaren 6ko 850/2018 ERABAKIA argitaratu ondoren

## Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoetako plazak: 211

211 lanpostu horietatik, 106 sarbide librerako izango dira; 19, desgaitasuna duten pertsonentzat (%33ko edo hortik gorako desgaitasun maila); eta 95, Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegorako.

- **Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegorako plazak:** B taldeko funtzionarioek parte har dezakete, behar diren titulazioak izanez gero, baldintza orokorrak betez gero, eta karrerako funtzionario gisa gutxienez 6 urte egin badituzte beren jatorrizko kidegoan eskabidea aurkezteko unean. Ezin izanen dute sarbide libretik kidego, espezialitate eta hizkuntza berera aurkeztu.
- **Desgaitasun erreserba:** baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten hautagaiak parte hartu ahalko dute, beti ere desgaitasuna %33koa edo hortik gorakoa badute, eta irakasle lanerako gaitasun funtzionala badute, bai orokorrean bai dagokien kidegoan eta espezialitatean. Ezin izanen dute sarbide libretik kidego, espezialitate eta hizkuntza berera aurkeztu.

## Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa:

Espezialitateak	Hizkuntza	Sarbide librea	Desgaitasuna	Sarbidea	Guztira
Ekonomia	G	2	1	3	6
Gorputz Hezkuntza	G	4		4	8
	E	3		3	6
Fisika eta Kimika	G	6	1	7	14
	E	4	1	5	10
Geografia eta Historia	E	4	1	5	10
Informatika	G	3	1	4	8
Ingelesa	G	9	1	10	20
	E	6	1	7	14
Gaztelania eta Literatura	G	6	1	7	14
	E	4	1	5	10
Matematika	G	3	1	4	8
	E	8	1	8	17
Hezkuntza Orientabidea	G	7	1	7	15
	E	4	1	5	10
Teknologia	G	3	1	4	8
Esku-hartze soziokomunitarioa	G	3		3	6
<b>Guztira Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa</b>					<b>184</b>

## Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa:

Espezialitateak	Hizkuntza	Sarbide librea	Desgaitasuna	Guztira
Instalazio Elektroteknikoak	G	3	1	4
Mekanizazioa eta Makinen Mantenimendua	E	3	1	4
Nekazaritza Ekoizpeneko Operazioak eta Tresneria	G	5	1	6
Osasun eta Asistentzia Prozedurak	G	4	1	5
	E	2		2
Sistema eta Aplikazio Informatikoak	G	5	1	6
<b>Guztira lanbide heziketako irakasle teknikoen kidegoa</b>				<b>27</b>

## Titulazioak

Baldintza orokorrez gainera (espainiar nazionalitatea edukitzea edo Europar Batasuneko beste herrialde batekoa izatea; gutxienez 18 urte edukitzea; eginkizunekin bateraezina izango den eritasun edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; Administrazio Publikoan aritzea galarazten duen diziplina espedienterik ez izatea; karrerako funtzionarioa ez izatea, ezta praktiketako edo izendapen esperoan dagoena ere), honako hauek dira sarbide libre bidez sartzeko titulazio baldintzak:

### Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

- Doktorego, Lizentziatura, Ingeniaritza, Arkitektura edo dagokion Graduoko titulua (edo deialdiaren III. eranskinean aipatzen diren titulu baliokideak).

### Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoa:

- Unibertsitate Diplomatura, Arkitektura Teknikoa, Ingeniaritza Teknikoa edo dagokion Graduoko titulua (edo IV. eranskinean aipatzen diren titulu baliokideak).
- **Salbuespenak:** soilik Sistema eta Aplikazio Informatikoak espezialitatean onartuko dira baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak: hots, eskatzen den titulazio orokorra ez izan arren, espezialitatean gutxienez bi urteko esperientzia izatea Nafarroako ikastetxe publikoetan eta Teknikari Espezialista edo Goi-mailako Teknikari titulua edukitzea dagokion familiako lanbide heziketako espezialitate batean.

4

### Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa

- Maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 100.2 artikulua arabera, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa izango dute dagokion Unibertsitate Master Titulu Ofiziala dutenek (DBH, Batxilergo, Lanbide Heziketa eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasle izateko gaitasuna ematen duen masterra).

Prozesuaren amaieran hautatuak izan direnek prestakuntza hori akreditatu beharko dute, 5 eguneko epean, zerrendak argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita. Masterraren tituluaren jabe direla egiaztatuko dute, orijinalaren edo fotokopia konpultsatuen bidez.

**Salbuespenak.** Ez dute titulu hau aurkeztu beharko baldintza hauetako bat bete zutenek 2009ko urriaren 1a baino lehen:

- Espezializazio Didaktikoko Titulu Profesionala, Irakaskuntzarako Kualifikazio Agiria edo Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria edukitzea.
- Titulu hauetakoren bat izatea: Maisu titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura, Lehen Hezkuntzako maisu titulua, Pedagogiako eta Psikopedagogiako lizentziatura titulua, eta pedagogia eta didaktikako prestakuntza barne hartzen duen lizentziatura edo titulu baliokidea.
- Gutxienez 12 hilabetez aritu izana ikastetxe publikoetan edo irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuetan, DBHn edo Batxilergoan, Lanbide Heziketan edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera.

- Lanbide Heziketako irakasle teknikoei dagokienez, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa aitortuko zaie honako baldintza hau betetzen dutenei: hots, 2014ko irailaren 1a baino lehen, bi ikasturte osoz irakasle aritu izana (edo 12 hilabete, segidan edo etenaldiekin), ikastetxe publikoetan edo irakaskuntza arautuko ikastetxe pribatuetan, dagozkion maila eta irakaskuntzetan.

## Hizkuntza eskakizuna

- Euskarazko postuetarako, titulu hauetako bat aurkeztu beharko da gainera: EGA, Euskal Filologiako lizentziatura, Euskaltzaindiaren Gaitasun Agiria, Hizkuntza Eskola Ofizialaren Euskararen Gaitasun Agiria edo titulu baliokideak.

## Parte hartzeko eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak

Eskabide bakarra aurkeztuko da, ordainketa gutunarekin eta baldintza dokumentuak eta merezimenduen egiaztagiriak jasotzeko fitxa zenbakituarekin batera. Dokumentu horiek helbide honetan eskura daitezke: [www.educacion.navarra.es](http://www.educacion.navarra.es) eta [www.navarra.es](http://www.navarra.es).

Kidegoa, espezialitatea eta hizkuntza adieraziko dira, eta prozedura (irekia, desgaitasun erreserba edo Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegorako sarbidea).

### Dokumentuak:

1. NAN edo baliokidearen fotokopia.
2. Diziplina espedienterik ez edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena (webgunean eskura).
3. Kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainketa gutuna (40 euro kidego, espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko, [www.educacion.navarra.es](http://www.educacion.navarra.es), "kontzeptua"-n kidegoa, espezialitatea eta hizkuntza zehaztuta). Ez dute kopuru hori ordaindu beharko %33ko edo hortik gorako desgaitasuna dutenek, edo gutxienez hilabete lehenagotik lan eskatzaile direnek eta lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez direnek (Enplegu Bulegoaren ziurtagiria eta web orriko dagokion aitorten inprimakia aurkeztuta).
4. Aurkeztu beharreko tituluaren fotokopia edo titulua jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria (fotokopia homologazio kredentzialarekin, baldin eta atzerrian lortu bada).
5. Euskaraz irakasteko gaitasuna ematen duen EGA edo titulu baliokidearen fotokopia (euskarazko lanpostuetarako).
6. Merezimenduen frogagiriak, ezarritako baremoaren arabera (I. eranskina).
7. **Beste nazionalitate bateko hautagaiak:** 3-7. puntuetan aipatutako agiriez gainera, dokumentu hauek: pasaportearen eta bisatuaren fotokopiak, bisatuaren txartela edo salbuespen ziurtagiria eskatu izanaren ordezlagiria, bere herrialdean diziplina espedienterik edo zigor prozedurarik

ez edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena, eta gaztelaniaren ezagutza akreditatzen duen tituluaren fotokopia.

**8. Desgaitasun erreseerbarako hautagaiak:** gainera, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako (edo Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko edo Defentsa Ministerioko) Balorazio eta Orientazio Taldeek emandako ziurtagiria, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna, ezintasun iraunkorra, guztikoa, erabatekoa, baliaezintasun handia edo baliokidea akreditatzen duena.

**9. %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten hautagaiak:** gainera, desgaitasun maila akreditatuko duen ziurtagiria, eta orri aparte batean, eskatzen diren denbora eta baliabide egokitzapenak.

**10. Sarbide bidezko hautagaiak:** 1-4. puntuez gainera:

- Hezkuntza Administrazioak emandako zerbitzu ziurtagiria, honako hauek adieraziko dituenak: kidegoa, arloa edo espezialitatea, Erregistro Pertsonaleko zenbakia eta jatorriko kidegoan sartzeko data, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren mende daudenean izan ezik.
- Merezimenduen frogagiriak, II. eranskineko baremoaren arabera (eginiko lana Giza Baliabideen Zerbitzuak egiaztatuko du Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren mende dauden funtzionarioen kasuan).

Fotokopia sinpleak izan ahalko dira, argitalpenen atalekoak ezik. Orijinalak edo fotokopia konpultsatuak eskatu ahal izango zaie pertsona hautatuei, dagokion Erabakiak ezarritako epean eta moduan.

Eskabideak Giza Baliabideen Zerbitzura bidaliko dira, Hezkuntza Departamentuko Erregistro, Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulego nahiz edozein erakunde publikoko erregistroetan edo posta bulego bidez (kasu horretan, gutun azal irekian, data eta zigiluarekin).

Eskabideak aurkezteko epea: 20 egun natural NAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

## Sarbide libreko eta desgaitasun erreseerbako hautapen prozesuak

Otsailaren 23ko 84/2018 Errege Dekretuan jasotzen diren aldaketa nagusiak, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretua aldatzen duena (sarrera, sarbide eta espezialitate berriak eskuratzeko arautegia onartzen duena eta sarrera araubide iragankorra arautzen duena):

- Probak baztertzailak izanzen direnez, alde guztiak aurkeztu beharko dira.
- Hautapen proba guztiak hizkuntza espezialitateei edo espezialitatea emango den hizkuntzari dagokion hizkuntzan egingo dira (abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legea).

Oposizio fasea %60		Lehiaketa fasea %40	
Lehen proba	Bigarren proba	Lan esperientzia	Prestakuntza akademikoa
<b>A atala. Praktikoak.</b> 2 h. 5/10 (gutxienez 2,5) <b>VI. eranskina</b>  <b>B atala. Gaia.</b> 2 h. 5/10 (gutxienez 2,5) < 25: 3 bolatxo. 26-50: 4 bolatxo. > 50: 5 bolatxo. <b>V. eranskina</b>	<b>A atala. Programazioa.</b> 30 min. <b>gehienez.</b> 4/10  <b>B atala. Unitatea.</b> 30 min. <b>gehienez.</b> 6/10 - Unitate didaktikoa - Lan unitatea (LH) - Esku-hartze programa (Hezkuntza Orientabidea)  <b>Epaimahaiaren galderak</b> (1 h eta 15 min gehienez).	7 puntu gehienez	5 puntu gehienez
Gutxienez 5	Gutxienez 5	Gehienez 10 puntu	

Oposizio fasea hasteko, aurkezpen ekitaldi bat egingo da epaimahaiaren aurrean, eta Programazio Didaktikoa entregatuko da ekitaldi horretan.

Merezimenduen behin-behineko balorazioen erreklamazio idatzia aurkeztu ahal izango da, 10 egun balioduneko epean, argitalpen egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.

## Atal praktikoaren edukia

**Gorputz hezkuntza:** erresistentzia, malgutasun, lastertasun, indar eta erlaxazioari buruzko ariketak diseinatzeko gaitasuna.

**Bigarren Hezkuntzako gainerako espezialitateak, Lanbide Heziketakoak barne (Informatika eta Esku-hartze Soziokomunitarioa):** espezialitate bakoitzari dagokion gaitegiari lotutako kasu praktiko bat ebaztea.

**Lanbide Heziketako irakasle teknikoaren kidegoa:** espezialitateari dagokion gaitegiari lotutako ariketa praktikoak egitea.

Behin epaimahaiak eratzten direnean, erresoluzio baten bidez zehaztuko dira atal praktikoaren edukiak.

## Programazio didaktikoaren edukia

Ez da denbora espezifikorik egongo azalpenaren aurretik prestatzeko. Hala ere aurkezpenerako egoki irizten den material osagarria erabili ahal izango da, pertsona bakoitzak jarritakoa. Kopia bat entregatuko zaio epaimahaiari aurkezpen ekitaldian eta beste kopia berdin-berdin bat, azalpen ekitaldian.

**Espezialitate guztiak (Hezkuntza Orientabidea izan ezik):** maila edo etapa baten ikasturteari dagokion espezialitatearen arlo, gai edo moduluaren curriculumari eginen dio erreferentzia.

Zehaztuko ditu helburuak, gaitasunak, edukiak, metodologia didaktikoa, eskubide bereziak dituzten ikasleentzako arreta neurriak, ikaskuntza estandar ebaluagarriak eta, hala badagokio, gaitasunak zer mailatan eskuratu diren eta helburuak zer mailatan bete diren ebaluatzeko irizpideak.

Gehienez 50 orrialde izanen ditu, DIN-A4, alde bakarrean idatzita, eta gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakitu, VIII. eranskinean jasotako curriculumetan oinarrituta.

**Hezkuntza Orientabidea espezialitatea:** Urteko Lan Plana (urriaren 29ko 66/2010 FDren 6. artikulua, NAO 145), esku-hartze psikopedagogikorako programak jaso, zehaztu, eta garatuko dituen, zenbakiuak, ikasturte batean Haur eta Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan edo Lanbide Heziketako ikasturte batean inplementatu beharrekoak.

Zehaztuko ditu Urteko Lan Planaren helburuak, edukiak, ariketak, prozedurak, baliabideak, jarraipena eta ebaluazioa.

Gehienez 50 orrialde izanen ditu, DIN-A4, alde bakarrean idatzita, lerroarteko arrunta, arial letra mota 12 neurrikoa eta gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakitu, VIII. eranskinean jasotako curriculumetan oinarrituta.

**Lanbide Heziketako espezialitateak:** aurkeztu den espezialitatean eskolak ematen diren modurik baldin bada, ziklo horien curriculumean oinarritutako programazioa (VIII. eranskina).

## Programazio didaktikoaren edukia

Programazio Didaktikoa defendatu aurretik, ordu bat emango da gehienez unitate didaktikoa prestatzeko, eta egoki irizten den materiala erabili ahal izango da horretarako, pertsona bakoitzak jarritakoa. Hala ere unitate didaktikoaren defentsan hautagai bakoitzak bakarrik orrialde bateko gidoi bat erabili ahal izango du. Gidoi hau epaimahaiari entregatuko zaio unitatearen defentsa egin ostean.

Aukeratu ahal izango da:

1. Unitate didaktikoak zerikusia izatea aurkeztutako programazioarekin, eta unitatearen edukia aukeratzea pertsonak berak aukeratutako hiruren artetik.
2. Espezialitatearen gaitegi ofizialetik abiatuta lantzea, eta gai baten unitatearen edukia aukeratzea kasu honetan, pertsonak espezialitatearen gaitegi ofizialetik ausaz hautatutako hiru gairen artetik.

VII. eranskineko edukiak jasoko dira, eta gidoi bat bakarrik erabili ahal izango da haren azalpenerako (folio bat gehien jota), azalpena amaitzean epaimahaiari entregatuko zaiona.

**Espezialitate guztiak (Hezkuntza Orientabidea eta Lanbide Heziketako espezialitate espezifikoak izan ezik):** zehaztuko dira ikaskuntza helburuak, edukiak/gutxieneko edukiak, irakaskuntza/ikaskuntza jarduerak eta errehabilitazio ariketak, metodologia eta antolakuntza argibideak, ebaluazio erreferenteak, ebaluazio prozedurak, ebaluazio tresnak eta irizpideak, eta oinarrizko gaitasunen garapenarekiko lotura (soilik DBHrako).

**Hezkuntza Orientabidea espezialitatea:** Urteko Lan Planaren barruan dagoen esku-hartze psikopedagogikorako programa bati buruzkoa. Zehaztuko dira programaren helburuak, edukiak, jarduerak, prozedurak, baliabideak, epeak eta jarraipen nahiz ebaluaziorako tresnak eta irizpideak.



**Lanbide Heziketako espezialitateak:** zehaztuko dira amaierako gaitasunak/ikas emaitzak, edukiak/oinarrizko edukiak, irakaskuntza/ikaskuntza jarduerak, errekupeazio jarduerak, metodologia eta antolakuntza argibideak, ebaluazio erreferenteak, ebaluazio prozedurak, ebaluazio tresnak eta kalifikazio irizpideak, baita etengabeko ebaluaziorako eskubidea galdu duten ikasleentzako ebaluazio tresna eta sistemak ere.

Lanbide Heziketa espezifikoko espezialitateetan, DBHko zein Lanbide Heziketako irakasle teknikoan kidegoetan, aurretik aipatutakoaz gainera, unitate didaktikoak erreferentzia egin ahalko die profil profesionalaren gaitasun unitateei dagozkien amaierako gaitasun/ikaskuntza emaitzei lotutako lan unitateei.

Oposizio faseari hasiera emanen dion aurkezpen ekitaldia 2018ko maiatzaren 15etik aurrera izanen da, eta erabakia gutxienez 7 egun lehenago argitaratuko da. Lehen probaren bi atalen deialdia 2018ko ekainaren 23an hasiko da. Deialdi bakarra egingo da.

## Sarbide hautapen prozesuaren garapena

- Hautapen proba guztiak hizkuntza espezialitateei edo espezialitatea emango den hizkuntzari dagokion hizkuntzan egingo dira (abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legea).

Oposizio fasea %55		Lehiaketa fasea %45	
A/ Azalpena eta planteamendu didaktikoa	B/ Eduki praktikoa	Egindako lanak	Prestakuntza akademikoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hautatutako 8 gairen artean bat ahoz aurkeztea (9, titulazioa eta espezialitatearen artean konkordantziarik egonez gero).</li> <li>- 45 min eta 15 gehiago eztabaidarako.</li> </ul>	Soilik espezialitate hauetarako: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputz Hezkuntza.</li> <li>- Informatika.</li> <li>- Esku-hartze soziokomunitarioa.</li> <li>- Teknologia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antzinatasuna (gehienez 4 puntu).</li> <li>- Funtzio bereziak eta borondatezko ebaluazioa (gehienez 2,5 puntu).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak (gehienez 3 puntu).</li> <li>- Merezimendu akademikoak eta beste merezimendu batzuk (gehienez 3 puntu).</li> <li>- Argitalpenak, hezkuntza proiektuetan parte hartzea eta merezimendu artistikoak (gehienez 1,5 puntu).</li> </ul>
Otik 10era (gutxienez 5 gainditzeko). Bi atalak egiten badira: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkezpena eta eztabaida %70</li> <li>- Eduki praktikoa %30</li> </ul> Salbuetsitako ariketetan 5 puntu emango dira; emaitza horri uko egin dakioke eta ariketa guztietan baldintza berberetan parte hartu (sarbide libreko edo desgaitasun erreserbako baldintza berberetan)		Gehienez 10 puntu	

Aurkezpen ekitaldia 2018ko maiatzaren 15etik aurrera izanen da, eta Erabakia gutxienez 7 egun lehenago argitaratuko da. Ariketa kolektibo baterako deitutako pertsonak deialdietan ezarritako egunean eta orduan aurkeztuko dira. Norbanako ariketetan, aurrez ezarritako orduan aurkeztu beharko da.

## Merezimenduak baloratzeko baremoa (I. Eranskina)

### Merezimenduak (gehienez 10 puntu)

#### I. Irakasle esperientzia (gehienez 7 puntu)

- I.1. Kidego berean ikastetxe publikoetan: urte oso bakoitzagatik 0,70 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0583 puntu).
- I.2. Beste kidego batzuetan ikastetxe publikoetan: urte oso bakoitzagatik 0,350 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0292).
- I.3. Kidegoak emandako maila bereko espezialitateak: urte oso bakoitzagatik 0,150 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0125 puntu).
- I.4. Kidegoak emandako maila ez beste maila bateko espezialitateak: urte oso bakoitzagatik 0,100 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0083 puntu).

#### II. Prestakuntza akademikoa (gehienez 5 puntu)

II.1. Alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoko batez besteko nota:			
	0-10 ESKALA	0-4 ESKALA	
2.1.1.	6tik 6,99ra	1,5etik 1,99ra	1
2.1.2.	7tik 8,49ra	2tik 2,74ra	1,250
2.1.3.	8,5etik 10era	2,75etik 4ra	1,500
II.2. Graduondoak, Doktoregoak eta Aparteko Sariak:			
II.2.1.	Eskakizun ez diren Ikasketa aurreratuen ziurtagiria/diploma, Master titulu ofiziala, Ikertzeko Nahikotasuna edo baliokidea.		1
II.2.2.	Doktorego titulua.		1
II.2.3.	Doktoregoko Aparteko Saria.		0,5
II.3. Unibertsitateko beste titulu batzuk (eskakizuna ez direnean):			
II.3.1.	Lehen zikloko tituluak.		1
II.3.2.	Bigarren zikloko tituluak.		1
II.4. Araubide Bereziko Irakaskuntza tituluak eta Lanbide Heziketa espezifikoko tituluak:			
II.4.1.	Musika edo Dantzako titulu profesionala.		0,500
II.4.2.	Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko edo goi mailako ziurtagiria edo EGA.		0,500
II.4.3.	Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari titulua.		0,200
II.4.4.	Lanbide Heziketako Goi Mailako Teknikari titulua.		0,200
II.4.5.	Goi Mailako Kirol Teknikari titulua.		0,200

#### III. Beste merezimendu batzuk (gehienez 2 puntu)

III.1. Etengabeko Prestakuntza (gehienez 1 puntu):		
III.1.1.	10 prestakuntza ordurengatik.	0,020
III.1.2.	Espezialitateari, eskola antolakuntzari edo curriculumaren alderdi orokorreki buruzko argitalpen zientifiko edo didaktiko bakoitzagatik.	Gehienez 1
Egile bat baino gehiagoren kasuan, pertsona kopuruaz zatituko da puntuazioa.		
III.1.3.	Hezkuntza proiektuetan parte hartzeagatik.	
	a/ Parte hartzea ikasturteko.	0,200
	b/ Koordinazioa ikasturteko.	0,500
III.2. Euskara, ingeles, aleman edo frantses tituluak:		
III.2.1.	C2.	1
III.2.2.	C1.	0,750
III.2.3.	B2.	0,500

## Merezimenduak baloratzeko baremoa (II. Eranskina)

### Merezimenduak (gehienez 10 puntu)

#### I. Eginiko lana (gehienez 5,5 puntu)

I.1. Antzintasuna (gehienez 4 puntu):	
I.1.1. 6 urteko eskakizuna gaindituko duen karrerako funtzionaritzako urte bakoitzagatik.	0,5
I.1.2. Hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	0,04
I.2. Funtzio bereziak betetzea eta borondatezko ebaluazioa (gehienez 2,5 puntu):	
I.2.1. Zuzendaritza karguak ikastetxeetan karrerako funtzionario gisa edo lan kontratu finkoarekin:	
- Ikastetxe publikoetan zuzendari edo alboko gisa eginiko urte bakoitzagatik.	0,25
- Hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	0,0208
- Ikastetxe publikoetan zuzendariorde, idazkari, ikasketa buru eta antzeko gisa eginiko urte bakoitzagatik.	0,20
- Hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	0,0166
- Ikastetxe publikoetan beste zuzendaritza kargu batzuetan eginiko urte bakoitzagatik.	0,15
- Hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	0,0125
- Ikuskatzaile lanetan eginiko urte bakoitzagatik.	0,10
- Hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	0,0083
I.2.2. Hezkuntza ikuskatzaileek irakaskuntza funtzioan eginiko balorazio positiboa.	0,25

#### II. Prestakuntza eta perfektzionamendu ikastaroak (gehienez 3 puntu)

A/ 3 kreditutik gora.	0,2
B/ 10 kreditutik gora.	0,5000

#### III. Merezimendu akademikoak eta beste merezimendu batzuk (gehienez 3 puntu)

III.1. Merezimendu akademikoak (gehienez 1,5 puntu):	
III.1.1. Graduondokoak, Doktoregoa eta Aparteko Sariak:	
- Eskakizun ez diren Ikasketa aurreratuen ziurtagiria/diploma, Master titulu ofiziala, Ikertzeko Nahikotasuna edo baliokidea.	1
- Doktorego titulua.	1
- Doktoregoko Aparteko Sarria.	1
III.1.2. Unibertsitateko beste titulu batzuk:	
- Lehenengo ziklokoak.	1
- Bigarren ziklokoak.	1
III.1.3. Araubide Bereziko Irakaskuntzen eta Lanbide Heziketa Espezifikoko tituluak:	
- Musika edo Dantza titulu profesional bakoitzagatik.	0,500
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako ziurtagiri bakoitzagatik (goi maila edo aurreratua).	0,500
- EGA titulu edo baliokideagatik (eskakizuna ez bada).	0,500
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako Teknikari titulu bakoitzagatik.	0,200
- Lanbide Heziketako Goi Mailako Teknikari titulu bakoitzagatik.	0,200
- Kirol arloko Goi Mailako Teknikari titulu bakoitzagatik.	0,200
III.2. Argitalpenak, hezkuntza proiektuetan parte hartzea eta merezimendu artistikoak (gehienez 1,5 puntu).	
- Argitalpen bakoitzagatik.	Gehienez 1
- Ikasturtean proiektuetan izandako parte hartze bakoitzagatik.	0,200
- Ikasturtean eginiko proiektuen koordinazio lan bakoitzagatik.	0,500
- Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kasuan, erakusketa edo lehiaketetan lorturiko sari bakoitzagatik, banakako erakusketa bakoitzagatik, lege gordailuaz edo argitalpenetan argitaratutako diseinu edo obra grafiko edo fotografiko bakoitzagatik.	0,500

## Gaitegi ofizialak (1. proba, B atala)

### Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa

**Espezialitateak:** Gorputz Hezkuntza, Fisika eta Kimika, Geografia eta Historia, Ingelesa, Gaztelania eta Literatura, Matematika, Hezkuntza Orientabidea, Teknologia.  
1993ko irailaren 9ko agindua (BOE, 1993ko irailaren 21).

### Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoa

**Espezialitateak:** Ekonomia, Informatika eta Esku-hartze soziokomunitarioa eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek kidegoa.  
1996ko otsailaren 1eko agindua (BOE, 1996ko otsailaren 13a).

## Curriculumen araudia

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

- 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Erkidegoan DBHko irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.

### Batxilergoa

- 25/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa, Nafarroako Gobernuarena, Nafarroako Foru Erkidegoan Batxilergoko irakaskuntzen curriculumak ezartzen duena.

### Oinarrizko Lanbide Heziketa eta Erdi Mailako eta Goi Mailako Heziketa Zikloak

#### Informatika eta komunikazioak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa: 50/2010 FD (NAO 2010/10/22).
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena: 203/2011 FD (NAO 2011/10/22).
- Web Aplikazioen Garapena: 207/2011 FD (NAO 2011/11/15).
- Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak: 49/2010 FD (NAO 2010/10/18).
- Telekomunikazioen Sistemak edo Informatikoak: 92/2012 FD (NAO 2013/01/04).

#### Esku-hartze soziokomunitarioa

- Animazioa Soziokulturala eta Turistikoa: 45/2013 FD (NAO 2013/03/24).
- Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta: 82/2012 FD (NAO 2012/12/27).
- Haur Hezkuntza: 93/2008 FD (NAO 2018/11/19).
- Gizarte Integrazioa: 272/2015 FD (NAO 2016/05/26).

#### Instalazio elektroteknikoak

- Industria Automatizazioa eta Robotika: 83/2012 FD (NAO 2012/12/17).
- Zentral Elektrikoak: 95/2014 FD (NAO 2016/01/04).

- Elektrizitatea eta Elektronika: 72/2014 FD (NAO 2014/11/11).
- Energia Berriztagarriak: 225/2011 FD (NAO 2011/12/19).
- Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak: 44/2009 FD (NAO 2009/06/24).
- Telekomunikazio Instalazioak: 51/2010 FD (NAO 2010/10/18).
- Mantenimendu Elektromekanikoa: 88/2012 FD (NAO 2012/12/07).
- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak: 220/2011 FD (NAO 2011/12/14).
- Telekomunikazioen Sistemak eta Informatikoak: 92/2012 FD (NAO 2013/01/04).

### **Mekanizazioa eta makinaren mantenimendua**

- Eraikuntza Metalikoak: 47/2009 FD (NAO 2009/06/26).
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua: 48/2010 FD (NAO 2010/10/15).
- Elikadura produktuen elaborazioa: 204/2011 FD (NAO 2011/10/24).
- Elementu Metalikoen Fabrikazioa: 53/2017 FD (NAO 2017/08/25).
- Fabrikazioa eta Muntaketa: 73/2017 FD (NAO 2014/11/25).
- Mantenimendu Elektromekanikoa: 88/2012 FD (NAO 2012/12/07).
- Mekanizatua: 98/2008 FD (NAO 2008/10/03).
- Industria Mekatronika: 89/2012 FD (NAO 2012/12/11).
- Metalen eta polimeroen modeloa: 90/2017 FD (NAO 2007/12/11).
- Prozesuak eta Kalitatea Elikadura Industrian: 218/2011 FD (NAO 2011/12/15).
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa: 48/2009 FD (NAO 2009/08/13).

### **Nekazaritza produkzioko operazioak eta ekipoak**

- Nekazaritza-Abeltzaintza jarduerak: 274/2015 FD (NAO 2016/05/26).
- Nekazaritza-Lorezaintza eta Lore Konposizioak: 68/2014 FD (NAO 2014/11/20).
- Ingurune Naturalaren Ustiapena eta Kontserbazioa: 89/2014 FD (NAO 2015/12/14).
- Abeltzaintza eta Albaitaritza Osasun Laguntza: 54/2013 FD (NAO 2014/01/08).
- Baso eta Ingurune Naturalaren Kudeaketa: 87/2012 FD (NAO 2012/12/12).
- Jardineritza eta Lorezaintza: 215/2011 FD (NAO 2011/11/10).
- Paisajismoa eta Landa Ingurunea: 90/2012 FD (NAO 2012/12/18).
- Ekoizpen Agroekologikoa: 216/2011 FD (NAO 2011/11/22).
- Nekazaritza-Abeltzaintza Ekoizpena: 226/2011 FD (NAO 2011/12/20).

### **Osasun eta asistentzia prozedurak**

- Anatomia Patologikoa eta Zitodiagnostikoa: 38/2017 FD (NAO 2017/08/14).
- Mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Arreta: 82/2012 FD (NAO 2012/12/27).
- Erizaintzako Aintza Osagarriak: 153/1996 FD (NAO 1996/0531).
- Osasun Larrialdiak: 43/2009 FD (NAO 2009/08/21).
- Larrialdiak eta Babes Zibila: 01/2015 FD (NAO 2015/01/21).
- Farmazia eta Parafarmazia: 58/2010 FD (NAO 2010/11/05).
- Aho-hortzetako higiena: 41/2017 FD (NAO 2017/08/14).

## Sistema eta aplikazio informatikoak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa: 50/2010 FD (NAO 2010/10/22).
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena: 203/2011 FD (NAO 2011/10/31).
- Web Aplikazioen Garapena: 207/2011 FD (NAO 2011/11/15).
- Bulegoko Informatika: 75/2014 FD (NAO 2014/12/12).
- Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak: 49/2010 FD (NAO 2010/10/18).

## Lanbide Heziketa Bereziko zikloak (aurrekoek gain)

- Osasun arloko zeladore laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 82/2017, irailaren 13koa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/10/06).
- Balio Anitzeko Jardueretako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 80/2017, irailaren 13koa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/10/06).
- Ostatu arloko eta arropa garbiketarako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 81/2017, irailaren 13koa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/10/06).
- Sukaldaritzako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 84/2017, irailaren 13koa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/10/06).
- Elektrizitateko laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 83/2017, irailaren 13koa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/10/06).
- Lorezaintzako eta Nekazaritzako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 85/2017, irailaren 13koa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/10/06).
- Kirol Instalazioetako Sarbide eta Mantentze-lanetako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 79/2017, irailaren 13koa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/10/06).
- Lanbide Artistikoetako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 57/2017, ekainaren 21ekoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/09/14).
- Elikagaien Industriako Eragiketarako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 58/2017, ekainaren 21ekoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/09/14).
- Eraikinak eta Lokalak Garbitzeko Eragiketarako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 59/2017, ekainaren 21ekoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/09/14).
- Erreprografiako eta Produktu Grafikoetako Eragiketarako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 60/2017, ekainaren 21ekoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/09/14).
- Datuen Tratamenduko, Ofimatikako eta Artxiboko Eragiketarako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 63/2017, ekainaren 21ekoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/09/14).
- Zerbitzu Administratibo Orokorretako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 61/2017, ekainaren 21ekoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/09/14).
- Merkataritzako Zerbitzu Orokorretako laguntzailearen Lanbide Heziketa Berezia: Foru Dekretua 62/2017, ekainaren 21ekoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala 2017/09/14).



Deialdi hau NAO n argitaratua izan den arren, bertan hainbat akats hauteman ditugu; honenbestez aldaketak egon daitezke.